

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Solana kontseilariak Erronkariko Julian Gayarre Ikastetxe Publikoko obren erritmo ona egiaztatu du

Ikasleen beharrei erantzuteko eta ikasgelak metodologia berritzaileei moldatzeko asmoz ikastetxeko zuzendaritza taldea aktiboki ari da parte hartzen proiektuan

Asteartea, 2019.eko otsailak 12

Erronkariko ikastetxearen eraikin berria sortzeko lanak 2018ko irailean hasi ziren. Maria Solana, Hezkuntza kontseilariak obrak bisitatu ditu gaur eta horien erritmo ona ikusi ahal izan du. Kontseilariarekin batera bertan izan dira Hezkuntza Azpiegitura zerbitzuko zuzenendari, Eneko Ardaiz Ganuza eta Erronkariko alkatea Jose Aitor Garmendia Eizagirre, ikastetxeko zuzendari, Maider García de Acilu Chamorro; ikasketa buru Mariana Zubiri Sanz eta Tomas Sucunza Lazcano, ikuskariarekin batera.



Solana kontseilaria Hezkuntzako arduradun eta Erronkariko ordezkariarekin batera.

Hezkuntza departamentuak 3.225.207, 27 euro aurreikusi ditu eraikitzen ari den azpiegitura berrirako, eta Departamentutik gauzatzen ari diren obra guztiak bezala, honek ere energia kontsumoa gehienera murrizteko irizipidea jarraituko du, eta jangelarekin batera patiora irteera duen gimnasio handia ere izango du, estalitako jolaslekuarekin batera.

Rio Valle Construcción y Obra Pública S.L, enpresa ari da obra garatzen eta lanen zuzendaritza taldeak azaldu die gaur Hezkuntzako arduradunei obrak aurreikusita bezela ari direla garatzen eta egun kanpoko igeltsero lanak ari direla burutzen. Hormigoizko estruktura jada amaituta dago, eta hala, datozen hilabeteetan ingurua urbanizatzeari ekingo diote, solairuan tutuak instalatu eta pladurra ezartzeari, gainontzeko lanekin batera.

Erronkariko ikastetxe berriak Akordio Programatikoa hartutako konpromezuei erantzuten dio eta zentzu horretan kontseilariak azaldu duenez, “hasieran izandako zailtasun teknikoez gain, zonaldeak duen beharrari erantzun ahal izateko urteetan zehar eskatu duen azpiegitura sortzeari erantzuna eman zaio”. “Horrelako ekintzek mendialdeko eremuetan biztanlegoa finkatzeko aukera bermatzen dute, Nafarroako zonalde bakoitzetara moldatutako proposamenak eginez”, gaineratu du.

Erronkariko Ikastetxe Publikak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak hartuko ditu, eta egun Erronkari, Burgi, Garde, Uztarroze, Bidankoze, Isaba, Urzainki eta Zaragozako Salvatierra de Escako 85 ikasle ditu: 62 ikasle ditu Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako D ereduan eta 21 A/G ereduan. Ikastetxeko zuzendaritza taldea aktiboki ari da parte hartzen ikastetxe berriaren proiektuan, beraien ideiak azalduz eta ikasgelan landuko diren berrikuntza metodologiak kontutan hartuz eta ikasleen beharriari erantzuna emango dieten arloak zehaztuz. Egun, ikastetxeak HEZIGARRI-PROEDUCAR programan parte hartzen du.